



BURUKO GAIXOEN SENIDE EDO ZAINZAILENTZAKO TREBAKUNTZA

IKASTAROA

-BEASAIN-

JUSTIFIKAZIOA

Gaur egun, buruko gaixotasuna dutenen pertsonen ardura eta zaintza nagusia senideak izaten dute, aldi berean, hauen integrazio eta erreabilitaziorako oinarrizko papera jokatzeko dute (Arartekoa 2009). Buruko gaixotasunak, hauek pairatzen duten pertsonengan ondorio negatiboak ekartzen dituzte. Sarritan pertsona hauen eremu pertsonala, laborala, soziala eta familiarra larriki eragindua izaten da.

Buruko gaixotasuna duen pertsona baten arreta zeregin zaila da eta batzuetan senide arteko giroa egoera kaotiko batera eramaen dezake, senideen arteko harremanak desegituratuz.

Gaixorik dagoen pertsona eta bere senide edo zaintzailearen integrazio eta bizi kalitatea hobetzeko, zaintzaileen trebakuntza buruko gaixotasunaren inguruan ardatz nagusi bat da. Informazioa eta prestakuntza zaintzaileari kontrol sententzia berrezkuratzeko laguntzen dio eta aldi berean beldurra, antsietatea eta nahasmena gutxitzen dio.

Hau dela eta, Agifesek ikastaro hauen bidez zaintzaileengana iritsi nahi du bere ingurunean, beraien egoera hobetzeko eta ulertzeko beharrezkoa den informazioa bere eskuetan jarri. Honek baliabide eraginkorren eranstea ahalbidetuko du.

NORI ZUZENDUA

Ikastaro hau buruko gaixotasuna duten pertsonen senide edo zaintzaileei zuzendua dago.

HELBURUAK

1. Buruko gaixotasuna eta osasunari buruz informatzea modu ulergarri batean.

2. Senideak suspertu beraien isolamendua gainditzeko eta berma soziala sustatzeko.
3. Senideak trebatu komunikazioaren hobekuntzan eta gatazka familiarren kompondidean.
4. Senide eta zaintzaileak, tratamendu, laguntza eta erreabilitazio programetan sartzeko aukera bultzatu, beraien bizi kalitatea hobetzeko.

METOLOGIA ETA IKASTAROAREN FORMATUA

Senide eta zaintzaileei zuzendutako ikastaroak taldetan emango dira. Sesioen dinamika hurrengoia izando da; lehenengo zatian gaiaren azalpena egingo da profesional baten eskutik modu ulerkor batean, eta bigarren zatian aldiz, zaintzaileek partehartu dezakete beraien esperientziak eta errealitateak alderatuz.

Gaiak azaltzeko, bost bilera nahiko direla uste da. Bilera bakoitzak ordu terdiko luzapena izango du. Bileren maiztasuna hamabostero izango da. Bilerak, osasun mentaleko profesionalek emana izando da eta material idatzia zein ikusentzutezkoa erabiliko da.

Ikastaro amaieran galdeketa ebaluatibo bat pasako zaie partehartzaile guztiei eta eragile social eta sanitarioei txosten bat bidaliko zaie ikastaroaren emaitzekin.

